



abailarri

EGAPE IKASTOLAKO ALDIZKARIA



IKASTURTE BUKAERAKO TAUPADAK



HAUR HEZKUNTZA: Goiz
batean baserrian



LEHEN HEZKUNTZA:
1.mailako ikasleak krosean



DBH: Jakintsuenengandik
ikasten



39.2015
UZTAILA



BEGIRADA BAT 2014-2015 IKASTURTEARI

Bukatu da beste ikasturte bat. Azkar pasatu diren hamar hilabete hauetan gauza asko egiteko aukera izan dugu, eskuartean duzun aldizkarian ikus daitekeen bezala. Orain, berririo, hausnarketarako garaia da, egindako guztiari gainbegirada emateko unea. Hausnarketa hori modu lasaian eta zentzu kritikoz egitea komeni da, ondorio egokiak ateratzeko. Ondorio hauek adieraziko digute datorren ikasturterako abiapuntua. Helburua beti etengabe hobetzen jardutea da. Azken finean, gure konpromisoa kalitatearekin honetan datza.

Ikasturtean zehar Ikastolak bizitzarako pertsonak hezten jarraitu du. Modu honetan darama ia berrogei ta hamar urte, hasierako ilusioarekin eta denbora berriei egokituz. Eguneratze prozesu honetan gure Hezkuntza Proiektua ikasturtez ikasturte sendotzen eta aberasten aritu gara, mota ezberdinetako proiektu pedagogikoak erantsiz. Proiektu hauek dira gure ikasleei kalitateko hezkuntza eskaintzeko tresnak. Proiektu hauei esker, Egapeko irakasleok ikasleei eta familiei laguntzeko baliabideak eskuratzen ditugu.

Gaurko hezkuntza sistemaren helburu nagusi bat ikasleak konpetentzia ezberdinetan trebatzea da. Egapek helburu hori bereganatzen du, eta hurrengo orrietan azaltzen den informazioak hori gauzatzen dela ere frogatzen du. Ikasturtean zehar gure ikasleek jardura hezigarri anitzetan parte hartu dute, ikasgelan edo ikastetxe gunean eta baita eskolaz kanpo ere. Aktibitate horiek goian aipatutako proiektuekin lotuta daude: bizikidetzarekin, hezikidetzarekin, eleaniztasunarekin, ingurumenarekin, zientziarekin, komunikaziorako teknologiekkin edo gaitasun artistikoekin.

Hezkuntza berriztapena izan da Ikastolak arreta handiz zaindu duen beste esparru bat. Hezkuntza, bizitza bezala, aldaketa prozesuan aurkitzen da eta aldaketa horiei aurre egiteko irakasleen formazioa ezinbestekoa da. Egape, ikasten eta irakasten duen ikastetxea da. Horrela, ikasturtean zehar irakasleek formazio jardura ezberdinetan parte hartu dute, ikasitakoa ikasgelatan erabiltzeko. Formazio saioak irakasteko metodologia hobetzera egon dira bideratuak. Bestalde eta ikastearekin batera, Egapek bere esperientzia positiboak beste ikastetxeekin partekatzeko aukera ere izan du.

Beraz, bukatu zaigun ikasturtea oparoa izan dela esango dugu. Iritzi hau hurrengo orrietan modu zehatzagoan egiazta dezakezue. Bukatzeko, Ikastolak Urnietako herritarren alde lanean tinko jarraituko duela berretsi nahi du.

BALANCE DE UN CURSO INTENSO

El curso 2014-2015 ha finalizado. Mucho ha sido lo realizado en los diez meses transcurridos. Ahora llega el momento de volver la vista atrás y de extraer conclusiones que nos permitirán continuar mejorando. Ese es nuestro compromiso con la calidad.

A lo largo del curso la Ikastola ha seguido formando personas para la vida y en ese cometido lleva ya casi cincuenta años, con la ilusión de sus orígenes y adaptándose a los nuevos tiempos. En ese proceso de actualización, nuestro Proyecto Educativo se ha fortalecido y enriquecido en base a proyectos pedagógicos de distinta índole. Son estos proyectos los que nos posibilitan los recursos para ofrecer una enseñanza de calidad a nuestros alumnos/as y ayudar a sus familias.

Uno de los objetivos fundamentales del actual sistema educativo consiste en capacitar al alumnado en la adquisición de las distintas competencias. La ikastola Egape hace suyo dicho objetivo y lo evidencia a través de la información que se ofrece en las siguientes páginas. Nuestros alumnos y alumnas han participado en actividades formativas de diferente tipo, actividades que están relacionadas con los proyectos arriba citados, tales como la convivencia, la coeducación, el multilingüismo, el medio ambiente, las ciencias, las tecnologías de la información o las competencias artísticas.

La innovación educativa es otro campo que la ikastola ha cuidado de manera especial. La educación, como la vida misma, se encuentra inmersa en profundos cambios y para enfrentarse a ellos resulta imprescindible la formación del profesorado. Egape es un centro que aprende para enseñar. A lo largo del curso el profesorado ha tomado parte en distintas actividades formativas, dirigidas fundamentalmente a mejorar aspectos metodológicos que incidan en el aula. Igualmente, la Ikastola ha compartido con otros centros sus experiencias positivas, trabajando en red.

Considerando todo lo que antecede, debemos concluir que el curso finalizado ha sido fructífero, tal y como se puede comprobar en las páginas siguientes. Para terminar, la Ikastola quiere aprovechar estas líneas para reiterar su compromiso de seguir trabajando en favor de Urnietá y de su ciudadanía.

GETXOLINGUEAE EGAPE BHI

2014-2015 ikasturtean hizkuntza proiektua gauzatzen hasi gara, horretarako Berritzegunean ibili gara urtean zehar. Bertan, Bilboko Berritzegune Nagusiko Mertxe Basterretxeak eta Maribi Apraizek laguntza eman izan digute hau guztia aurrera ateratzeko.

Egape Ikastolak Hizkuntza Proiektu hori gauzatzeko baditu zenbait erabaki aurretik hartuta, hala nola, ingelesez arlo bat eskaintzea (eleaniztasunerantz), ahozketasunari garrantzia ematea, ortografia irizpide bateratuak, testu mota desberdinak zuzentzeko irizpideak...

Hau dena ikusita, lehen aipaturako Berritzegune Nagusiko kide horiek gonbidapena luzatu ziguten gure praktika on horien berri emanez Getxolinguae jardunaldiaren parte hartzeko. Getxolinguae hizkuntzaren inguruan dauden proiektu eta berrikuntzen berri ematen duen EAE-ko jardunaldiak dira.



Hortaz, maiatzaren 13an gure Ikastolako bi kidek jardunaldi horietan parte hartu zuten. Emanaldiaren izenburua: "Egape Ikastola, Denok Hizkuntza Irakasle". Bertan, azpimarratu genituen gure puntu nagusiak, hau da,

irakasleen artean adostutako erabakiak hizkuntzak ebaluatzeko garaian edozein irakasgaitan, hizkuntzetakoak izan edo ez. Era berean, badira urte batzuk ikasgai bat ingelesez lantzen dugula, hasieran Hizkuntza Marko Hirueledunaren bitartez eta gaur egun, Eleaniztasunerantz proiektuaren barruan eta horren inguruan ere gure esperientziak kontatu genituen jardunaldi honetan. Gurekin batera DBH-ko eta LH-ko beste ikastexe batzuk bere praktika onak aurkeztu zituzten.

EGAPE BHI ETA BENGOTXE INSTITUTUA ELKARLANEAN

Azarotik maiatzera DBHko etapa eta Galdakaoko (Bizkaian) Bengoetxe institutua elkarrekin aritu gara proiektu batean, Egapen tutoretza eta orientazio prozesuan egiten duguna Bengoetxeko ikastetxearen esku jartzeko. Proiektu hau Hezkuntza Sailak lehen aldiz abian jarri du joan den ikasturtean, ezagutza partekatzeko asmoz. Orotara bost bilera burutu ditugu elkarrekin, jarritako helburuak betetzeko. Helburu horiek izan dira: elkarrekin ikastea eta aberastea; ikastetxe bakoitzaren tutoretza-sistemak alderatzea eta hobetzea; eta Bengoetxen tutoretza mailan egiten den lan guztia idatziz jasotzea, antolatzea eta sistematizatzea. Egapek Bengoetxeri lan hori egiteko behar duen laguntza eta aholkularitza eman dio. Erabilitako metodologia lan kolaboratiboan oinarritu da. Bukieran, esperientzia honek partehartzaileen asebetetasuna izan du.



IKT HELDUTASUN MAILA

Ikasturte honetan EGAPE Ikastolak IKTn Maila Aurreratua bermatzen duen agiria lortu du. Ziurtagiri honek IKTen hezkuntza erabilera sustatzeko egindako lana aitortzen du.

EGAPE ha recibido este curso el certificado que acredita el Nivel Avanzado en el uso de las TIC y el trabajo desarrollado para promover el uso educativo de las nuevas tecnologías.



LA IKASTOLA EGAPE APRENDE Y ENSEÑA EN RED

En su proceso de mejora continua la Ikastola comparte conocimiento y experiencias con otros centros de la red pública. En ese contexto la etapa de ESO ha participado, en los meses de mayo y junio, en dos iniciativas: en las jornadas de Getxo (Bizkaia), para dar cuenta de su proyecto multilingüe, y en el foro de Calidad en Educación de Eibar, para exponer el trabajo compartido con el Instituto de Galdakao (Bizkaia) sobre el proceso de tutoría y orientación.



HH • 3 URTEKOAK



GOIZ BATEAN BASERRIAN

Baserriko gaia lantzen ari garela aprobetxatuz, maiatzean inguruko bi baserri bisitatzera joan ginen. Horretarako, autobusa hartu eta Oiamar baserrira abiatu ginen. Han, pixa egiten harrapatu genituen behiak eta txekorrak. Ongi etorria emateko, oiloek arraultzak jarri zituzten guretzat!

Ondoren, paseo bat emanez Azkonobieta baserriraino iritsi ginen. Bertan, denetarik ikusteko aukera izan genuen: antzarrei eta txerrikumeei jaten eman genien; akuriak hartzen utzi ziguten; lasterketetako zaldien ikuiluan egon ginen; larrean ahuntzak gora eta behera zebiltzan; galeper jaioberriak eskuetan izan genituen...

Oso gustora pasa genuen goiza eta irteera horri amaiera emateko, kioskoko parkera joan ginen hamaiketako egitera.



UNA MAÑANA EN EL CASERIO

Aprovechando que estamos trabajando el tema El Caserío, fuimos a visitar dos de ellos. Cogimos el autobús en la calle Pintore, y nos dirigimos al caserío Oiamar.

Allí vimos a las vacas con sus terneras y alguna se hizo pis. Como bienvenida, las gallinas pusieron huevos para nosotras y nosotros.

Dando un paseo bajamos hasta el caserío Azkonobieta. Allí tuvimos oportunidad de hacer un poco de todo: dimos de comer a las ocas y a los cerditos; nos dejaron coger a las cobayas; estuvimos en la cuadra con caballos de carreras; vimos como corrían las cabras; tuvimos entre las manos codornices recién nacidas...

Nos lo pasamos muy bien y para terminar la mañana, fuimos al parque del quiosco a comer el almuerzo.





HH • 4 URTEKOAK

GUK ERE LIBURUAREN EGUNA OSPATU DUGU!

Apirilaren 23an Liburuaren Eguna ospatu zen eta horretarako gure Ikastolan hainbat ekintza antolatu ziren. Gu, ikastolako liburutegia bisitatzera joan ginen, ez baikenuen ezagutzen eta zenbat liburu! Bertako arduradunak primeran erakutsi zigun dena: arauak zeintzuk diren, liburu handiak eta potoloak non dauden, kolore bakoitza zein adinetako haurrentzat den, guretzako liburuak non dauden... Bisita bukatzeko, bi ipuin kontatu zizkigun arduradunak eta primeran pasa genuen! Hurrengo bisitaren zain gaude!



NOSOTROS TAMBIEN HEMOS CELEBRADO EL DIA DEL LIBRO

El pasado 23 de abril se celebró el Día del libro y por ese motivo se llevaron a cabo diferentes actividades en nuestra Ikastola. Nosotros como no conocíamos la biblioteca de la Ikastola, nos invitaron a conocerla y... ¡cuántos libros! La responsable nos explicó todo muy bien: cuáles eran las normas, dónde estaban los libros grandes y gordos, qué color correspondía a cada edad, dónde estaban los libros para nosotros... Para terminar la visita, la responsable nos contó dos cuentos. ¡Lo pasamos genial y ahora estamos esperando la siguiente visita!



HH • 5 URTEKOAK

GORA UDABERRIA!



Aurten ere pozik ekin diogu udaberria gaia lantzeari. Irteera egin genuen zelai eta zuhaitzak loretan ikusteko, baratzeko barazkiak ezagutzeko eta bide batez zelai berdeetan txiribuelta gozatzeko. Gelan ere zenbait ekintza egin genituen: hormairudi polit bat, plastikako zenbait lan eta bukatzeko gure baratza osatu genuen denon artean. Begira zein polita geratu zaigun!



Empezamos el trimestre con el tema de la primavera y aprovechando el buen tiempo realizamos una salida para ver los árboles en flor, conocer algunos productos de la huerta y de paso disfrutar dando volteretas en la hierba. En la clase llevamos a cabo distintas actividades: un bonito mural, diversos trabajos manuales y para terminar hicimos entre todos la maqueta de una huerta. ¿No os parece bonita?



LH • 1. ZIKLOA

LEHENENGO MAILAKO IKASLEAK HERRIKO KROSEAN

Maiatzaren 8an, Urnietako kiroldegiko pistan, herriko krosa antolatu zen Lehen Hezkuntzako 3.,4.,5. eta 6.mailako ikasleentzat. Egape ikastolako lehenengo mailako ikasleei gonbidapena luzatu zitzaion ikustera joateko. Bukatu zenean, lehenengo mailakoak animatu ziren parte hartzera eta korrikalari bikainak ikusteko aukera izan genuen. Hori bai zorte ona, gurea!



LOS ALUMNOS/AS DE PRIMERO PARTICIPAN EN EL CROSS

El pasado 8 de mayo, los alumnos y alumnas de primero de primaria de la ikastola Egape fueron a ver el cross que se organizó para los de 3º,4º,5º, y 6º de Urnieta. Al finalizar, ellos también tuvieron la ocasión de correr en la pista y pudimos comprobar qué bien corren. ¡Vaya suerte la nuestra!

LARBURU BASERRIRA BISITA

2.mailakook "Goazen mendira!" txanelako gaiarekin lotuta, irteera zoragarria egin genuen maiatzaren 27an. Gure lagun Ane Louvelliren baserrian izan ginen bertan duten zoologikoa ikusten! Angorako ahuntzak, paumak, indioilarrak, Afrikako hegaztiak, poniak eta Egapeko gabonetako azokako iazko txerria ere hantxe zegoen bere laguntxoarekin! Primeran pasa genuen!



VISITA AL CASERÍO LARBURU

El 27 de mayo visitamos el caserío Larburu en el cual vive nuestra amiga Ane Louvelli. Allí, ante nuestro asombro, pudimos ver todo tipo de animales: cabras de Angora, ovejas negras enanas, cisnes negros y blancos, ponis, pavos reales, aves africanas y el cerdito que se rifó en la fiesta de Navidad de la ikastola el pasado año. Estaba muy bien acompañado por otro cerdito que era su amiguito! Lo pasamos fenomenal!

LH • 2. ZIKLOA



ENPATIA

Martxoan, Elkarbizitza Lan Taldeak bultzaturik, enpatiari buruzko ekintza ezberdinak burutu genituen; besteak beste, enpatia zer den, bideo ezberdinak ikusi, besteen larruan jartzeko jarduerak eta azken lan bezala, landutako guztiarekin hormairudi bat prestatu behar izan genuen. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleek lanak, Lekaio kultur etxean ikusgai izan ziren. Gure kasuan, hormairudia egiteko Interneten eta guk ateratako argazkiak erabili genituen. Erakusketa arrakastatsua izan zen.

EMPATIA

En marzo participamos en la exposición sobre la empatía que fue organizada por el grupo de trabajo de Convivencia de la ikastola. Para entender qué es la empatía llevamos a cabo diferentes actividades y como trabajo final, realizamos un mural entre todos. La exposición se pudo ver en Lekaio y fue un éxito.



LH • 2. ZIKLOA

ELKARBIZITZA AITONA-AMONEKIN

Martxoaren bukaeran, 4. mailako ikasleok Urnietako Eguneko Zentroan dauden aitona-amonak bisitatzera joan ginen. Bertan, mahai-joko ezberdinetan aritu ginen bata besteari erakutsiz eta elkarri lagunduz: partxisa, domino eta karta jokuetan “Seiko urrea”. Primeran pasa genuen! Azkenik, saioa bingo partida izugarri batekin bukatu genuen! Oso goiz polita eman genuen gure aitona-amonekin.

CONVIVENCIA CON LOS ABUELOS Y ABUELAS

La última semana de marzo, los alumnos y alumnas de 4º de primaria fuimos a visitar a nuestros mayores al Centro de Día de Urnieta. Disfrutamos con ellos jugando al parchís, al dominó y “a los seises” con las cartas. Nos reímos mucho juntos. Al final, terminamos con una emocionante partida de bingo. ¡Pasamos una bonita mañana junto a nuestros mayores!



LH • 3. ZIKLOA

GURASOEKIN IKASTEN

Luis Mari Zalduaren bisita izan zuten 5. mailako ikasleek joan zen udazkenean. Filologo eta etnologoak Urnietako historiaren kontakizun zenbait eskaini zituen. Herriari bisita gidatua egin eta iraganeke arrastoen berri eman zien ikasleei.

6. mailako ikasleek ere aukera izan dute hainbat gurasoen esperientziak eta jakinduria partekatzeko, hala nola, Jon Tomasenak, Europan zehar egindako bidaia azaldu zien; Itziar Agote, Josune Zubeldia eta Luke Goñi, erizainek, gure gorputzaren eta honen osasunaren inguruan hitzalditxoak eta tailer praktikoak azaldu zizkiguten.

Esperientzia oso aberasgarria eta probetxuzkoa iruditu zaigu. Beraz, Egapeko gurasoak ongi etorriak gure geletara, nahi duzuen arte!

Los alumnos de 5º curso tuvieron la visita guiada de Luis Mari Zaldua el pasado otoño. El filólogo y etnólogo realizó junto con los alumnos una visita guiada por el pueblo y por su historia, dando cuenta de la riqueza histórica de Urnieta.

El alumnado de 6º durante este curso ha disfrutado de los conocimientos y la experiencia de algun@s padres/madres. Jon Tomasena nos deleitó con las anécdotas de su viaje por Europa; con Itziar Agote, Josune Zubeldia y Luke Goñi, aprendimos más sobre nuestro cuerpo y los cuidados que precisa.

La experiencia que hemos compartido con las familias que se nos han acercado ha sido enriquecedora. Bienvenid@s a nuestras aulas.



PAUSOKA: PAUSO HANDIAK ETA PAUSO TXIKIAK ELBARRITASUNAREKIN BIZITZEN IKASTEKO



Egapeko ikasleek Pausokako kideak elkarrizketatu dituzte

Pausoka elkarte elbarritasunen bat duten haurren gurasoek osatzen dute batik bat. Irabazi-asmorik gabeko elkarte da, 2012an sortu zena. Beraien seme-alaben autonomia garatzea eta gizartearen esparru guztietara berdintasunean heltzea dute helburu.

Egape Ikastolako DBH 2. Mailako ikasleok gehiago jakin nahian, taldeko ordezkari batzuk gure zentrora gonbidatu ditugu. Elkarrizketa honetan ama baten eta bi langileren iritzia ezagutzeko aukera izan dugu. Mariarekin hasiko gara, Markelen ama eta Pausokako zuzendaritza-batzordeko kidea.

Noiz eta zergatik erabaki zenuten antolatzea?

Behar bereziak dituzten hurrek errehabilitazio etengabea behar dute. Beraz, gure hurrek kasu hauetan aplikatzen diren terapia desberdinak jaso ahal izateko zentro bat prest eduki nahi genuen. 12 familiak hasi genuen ekimena eta orain dela lau urte hasi ginen laguntza eske. Hori dela eta, Hernaniko Udalak lokal bat utzi zigun eta hala ekin genion gure bideari. Orain 65 familiak osatzen dugu elkarte.

Elkarte sortu genuen jende asko izateak helburuak lortzerakoan indarra ematen zigula ohartu ginelako. Beste arazoietako bat, familien arteko enpatia baliatzea zen, guztiok arazo bera dugunez elkar errazago ulertzen dugulako.

Hobekuntza nabaritu al duzue zuen seme-alabengan?

Bai. Kontuan izan behar da haur hauentzat eguneroko zereginak erronka handiak direla. Garrantzitsuena egunero beraiekin lan egitea da eta modu horretan gure xedeak bete ditzakegu.

Garrantzitsua al da hedapena zuen elkarterako?

Bai, ematen duena baino gehiago. Haur ezinduak bere herrian ezaguna eta maitatua dela sentitzen du, berak nabaritu egiten du hori. Jendeak haurra agurtzea eta berarekin jolastu nahi izatea atsegina eta estimulu handia da.



Eider eta Nora PAUSOKAko bi langile dira eta beraiekin hitz egin dugu elkarrizketaren bigarren zatian.

Zertan datza zuen lanbideak eta zergatik aukeratu zenuten? Argi al zenuten “elbarritasunen” esparruan lan egin nahi zenutela edo kasualitatea izan zen?

NORA: nire kasuan, terapia okupazionala hautatu nuen, atzerrian langile boluntario moduan izan nuen esperientziagatik. Han elbarrituei lagundu nien.

Gure lanaren helburua pazienteengan, kasu honetan haurrak, ahalik eta autonomia handiena lortzea da. Abiapuntua haurren gaitasunetan arreta jartzea da, bere mugetan jarri beharrean. Familiekin hitz egiten dugu, zer behar dituzten ikusten dugu eta gu hori lantzeaz arduratzen gara.

EIDER: nik logopedia karrera aukeratu nuen eta alderdi klinikoan espezializatu nintzen. Arnasketa, mastekatzea, irenstea... lantzen ditugu. Lana hautatzerakoan ez nuen esparrurik baztertu, baina praktikaren bidez ohartzen zara benetan gustuko duzuna zer den. Pausoka oso proiektu polita iruditu zitzaidan, bertan parte hartzeko aukera eman zidaten, gustatu egin zitzaidan eta alor honetan espezializatzea erabaki nuen.

Zuek egiten duzuen lana titulua duen edozein profesionalak egin dezakeela uste duzue edo bokazio “plus” bat beharrezkoa da?

Bai, bokazioa funtsezkoa da. Teknika primeran ezagut dezakezu, baina horren garapenean interesik edo gogorik jartzen ez bada, ez da ongi irtengo.

Gainera, garrantzitsua da hurrekin tratatzea gustuko izatea, eta, noski, pazientzia izatea.

Ikasketak aukeratzerakoan, gazteei beraien bokazioari jarraitzea gomendatuko al zeniekete?

Bai, zalantzarik gabe. Oso garrantzitsua da egiten denarekin gustura sentitzea. Egunekeo zatirik handiena gustuko ez duzun zereginak egiten pasaz gero, ezinezkoa da zorientsu izatea.

Zein da zuen lanbidearen zati atsegina edo hoberena?

Haur hauei autonomia lortzeko baliagarria zarela jakitea, hau da, beraien bizi kalitatea hobetzen ari zarela sentitzea.

JAKINTSUENENGANDIK IKASTEN

DBHko IKASLEAK BIDEO-ELKARRIZKETAN ARITU ZIREN IGNACIO TANGO ZIENTZILARIAREKIN



Bigarren Hezkuntzako laugarren mailan Fisika eta Kimika ikasten duten ikasleek, ikasturtean ikasitakoari bukaera borobila emateko, Ignacio Tanco injenieri urnietarrarekin Skypen bidez bideo-elkarrizketa bat mantendu zuten.

Ignacio Tanco injenieri aerospaziala da eta kurrikulum aparta du. EEBBetan lanean jardun ondoren, 2001tik European Space Agency (ESA) delakoan ari da lanean. Une honetan Alemaniako Darmstadt-en ESAk duen egoitzan aurkitzen da. Azken hamar urtetan zientzilaria urnietarra Rosetta proiektuan murgilduta dabil.

Bideodeialdian zehar, Ignacio Tanco ikasleak egindako hainbat galdera erantzun zituen. Galderak, mota ezberdinetakoak izan ziren: bere ikasketak, kometak, lurretik kanpoko bizitza edo Rosetta zunda, batzuk aipatzeagatik.

Ikastaldeak arreta handiz entzun zituen Ignacio Tancoren azalpenak, hauek oso garbiak eta didaktikoak izan zirelarik. Bukieran, ikasleek asebeteta geratu ziren izandako esperientziarekin.

Lerro hauen bitartez, Egape Ikastolak esker beroenak eman nahi dizkio Ignacio Tancori bere jakinduria gurekin partekatzeagatik.



FIVE DAYS TO DANCE

Ikasturte honetan DBH 3. eta 4. mailako ikasleekin abenduaren 15etik 20ra "5 days to dance" (dantzatze 5 egun) proiektuan parte hartu genuen. Urnietako Udalak eta DSS2016ak ekimen hau ahalbideratu zuten.

"DE Loopers-dance2together" dantza-antzerki konpainiaren kideak diren Wilfried van Poppel holandar koreografoak eta Amaya Lubeight donostiar dantzariak "Isiltasunaren ahotsa" proiektua jorratu zuten.

Ikasle askorentzat dantza-antzerkiarekin lehen harremana izan arren, ahaztu ezinezko esperientzia bihurtu zen.



El alumnado de 3º y 4º de ESO escenificó el pasado diciembre en SAROBE la coreografía "La voz del silencio", como colofón del proyecto Five days to dance, dirigido por Wilfried van Poppel y

Amaya Lubeight. La experiencia logró emocionar a toda la comunidad escolar.



JOSU GINÉS, LANDER CIA ETA GORKA CURIEL

Aurten ere DBH 4. mailako ikasle talde batek Galtzagorri elkarteak antolatzen duen booktrailer lehiaketan sari bat lortu du. Zorionak! Aukeratu duten liburua Gerlari zuria izan da eta egindako lana ikusi nahi baduzue, ikastolako web gunean aurkitu dezakezue. Ea zuei ere gustatzen zaizuen!

ABALLARRI GURASOEN ELKARTEA

Amaitu da 2014/2015 ikasturtea. Gure seme-alabak oso lanpetuta ibili dira: ikasketak, lagun berriak, irakasle berriak ... jarduera piloa. Pixkanaka euren ingurunea, euren herria ezagutzen ari dira, eta ezagutza globalera ematen duen leihoa zabaltzen ari zaie begi aurrean. Lehenengo hautatze-erabakia ez da beraiena izan, gu izan gara, aitzak eta amak, pertsona modura hazteko leku egokia Egape Ikastola Publikoa dela erabaki dugunak. Bakoitzak bere arrazoa izan dezake, seguru gainera arrazoi horiek anitzak eta desberdinak direla, baina ikastolek, gure ikastolak, gainerako ikastolekin partekatzen duen helburu bat badu:

Hezkuntza, Euskaltasuna, elkartasuna, lankidetzeta, auzolana eta konpromisoa dira ikastolen ezaugarri nagusietakoak. Azken helburu honek inplikarazten gaitu gehien gurasook: konpromisoak. Aurten talde txikia izan gara gure aurretik egon direnek egindako lanari jarraipena eman diona. Giza-talde bezala bakoitzak bere lan egiteko modua dauka, orain arte funtzionatu duten jarduerekin eta eskolaz kanpoko jarduerekin jarraitzea erabaki dugu, baina egungo gizartean eskaintzen diren aukera ugarietara muga jartzea erabaki dugu. Ez dugu nahi ikastola akademia pribatu moduko bat izatea, hainbat eta hainbat ikastaro eskainiko dituen, horietako bakoitzean gutxieneko haur kopurua ozta-ozta lortzera iritsiko dena, kontuan izanik gainera

jarduera horiek eskaintzen dituzten pertsonak langile bezala legearen barruan araututa egon beharko dutela. Eskaintzen diren jardueretako gehienak eguerdian egin behar dira, jangelako ordua baldintzatuz; ondorioz, ariketa zaila gertatzen da jarduera hauek egitean eguerdikotako tartea gure seme-alabei, irakasleriari, jangelari eta zaintzari estres erantsia eragingo ez dien gunea izan dadin sailatzea. Horregatik orain arte egin diren eskolaz kanpoko jarduerak eskainiko ditugu, jarduera bakoitzean gutxieneko partehartzaile kopurua eskatuz (5 ikasle) eta 10 euroko bazkide kuota ordaintzeko derrigorotasunez. Kuota hau gutxienekoa da elkarte batek zentzuz funtziona dezan.

Datorren urtean gure ikastolak, Egape Ikastolak, 50 urte beteko ditu. Urrezko Ezteiak. Data garrantzitsua guztiok kontuan izan dezagun eta lan egiteko prest egon gaitzen, bai, baina batez ere ospatzeko.

Erabakitako bidea modu positiboan baloratzea eta ikastola osoari eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen, irakasle, zaintzaile, jangelako langile, sukaldari eta abarrei, gure seme-alabekin egin duten lanarengatik.

Modu partikularrean guk, elkarte bezala, bereziki eskerrak eman nahi dizkiegu Edurneri eta Itsasori, eskaini dizkiguten laguntza, aholkularitza, dedikazio eta... pazientziarengatik.



Este curso 2014/2015 ha finalizado. Nuestros hijos e hijas han tenido un nuevo año intenso de estudio y aprendizaje, nuevas amistades, nuevos profesores... multitud de actividades. Poco a poco van conociendo su entorno, su pueblo y se les va abriendo la ventana al conocimiento global. A ellos y ellas no les damos la primera decisión de elección, hemos sido nosotros y nuestras, padres y madres, los que deciden por ellas y ellos que la Ikastola Pública de Egape es el lugar adecuado para que crezcan como personas. Cada uno puede tener su motivo, seguro que diferentes y diversos, pero las ikastolas, nuestra ikastola, tiene un objetivo común con el resto de ikastolas;

La Educación, la identidad vasca, la solidaridad, la cooperación, el trabajo en común y el compromiso son algunas de las principales características de las ikastolas. En este último objetivo es donde se nos implica más a los padres y madres, el compromiso. Este año un pequeño grupo hemos continuado la labor que han realizado los que nos han precedido. Como grupo humano cada uno tiene su manera de trabajo, nosotros y nosotras hemos optado por continuar con las actividades y extraescolares que han funcionado hasta la fecha, pero hemos decidido poner una barrera a las infinitas opciones que se ofrecen en la sociedad actual. No queremos que la ikastola sea una especie de academia privada ofertando multitud de cursos que a duras penas llegue a un mínimo razonable de niños y niñas, teniendo además en cuenta la obligatoriedad de que los

las que imparten las actividades estén laboralmente legalmente regulados. La mayoría de las actividades que se ofertan hay que ajustarlas al mediodía, coincidiendo y condicionando de mala manera la hora del comedor, teniendo que hacer verdaderos puzzles para que además de que se puedan dar las actividades, estas y la hora de comedor sea un espacio que no genere estrés añadido a nuestros hijos e hijas, profesorado, comedor y zaintza. Por ello ofertaremos las extraescolares que se han realizado hasta la fecha exigiendo además un mínimo de participantes por actividad (5 alumnos/as) y con la obligatoriedad de abonar la cuota familiar de socio/a de 10€. Cuota mínima para que una asociación pueda funcionar razonablemente.

El año que viene nuestra ikastola, Egape Ikastola, cumplirá 50 años. Bodas de Oro. Una fecha importante para que todos y todas la tengamos en cuenta y estemos preparados y preparadas para trabajar sí, pero sobre todo para celebrar.

A nosotros y nosotras no nos queda más que valorar positivamente el camino decidido y agradecer a toda la ikastola, docente, zaintza, comedores, cocineras...etc, el trabajo realizado con nuestros hijos e hijas y particularmente nosotros y nosotras como asociación agradecer especialmente a Edurne y a Itsaso su valiosa ayuda, consejo, dedicación...y paciencia.



IKASTOLAKO ESPERIENTZIAK ERAKUSGAI

Maiatzaren 14 eta 15ean, Bilbon, Osasuna Sustatzearen inguruko kongresu bat ospatu zen. Kongresua, Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Hezkuntza sailek eta UPV/EHUKo ikerketa errektoreordetzak antolatu zuten. Batzarraren leloa, "Inguru eta politika publiko osasuntsuagoen alde berriztatzen" izan zen.



Bertan hainbat mahai inguru izan zen, non hirigintza, zahartzarora, sektore arteko elkar langintza eta hezkuntza alorretan, besteak beste, Osasuna Sustatzearen egoeraz hitz egin eta landu zen profesional desberdinen artean. Hezkuntzaren alorrean, konkretuki, "Osasuna sustatzaile diren hezkuntza inguruak" mahai inguruan, Urnietako Egape ikastolan burutu den esperientzia bat aurkeztu zen. Esperientzia hori, Ikastolako ama diren hiru erizainek (Iciar Agote, Luke Goñi eta Josune Zubeldia) burutu zuten 6. mailako Ana Urdangarin irakaslearekin batera. Bertan, 6. mailako ikasleekin ingurune ikasgaiko hainbat gaien inguruan egindako osasunaren sustapenaren inguruko lana azaldu zen.



Los días 14 y 15 de mayo se celebró en Bilbao el Congreso de Promoción de la Salud, organizado por los servicios de salud y educativos del Gobierno Vasco junto con la UPV. El lema del congreso fue "Innovando para unos entornos y políticas públicas más saludables".

En este congreso participó Josune Zubeldia con una experiencia que se ha realizado en la ikastola con madres enfermeras (Iciar Agote, Luke Goñi, y Josune Zubeldia) en las aulas de 6º de Primaria, con el título "Integrando la Promoción de la Salud dentro del currículum escolar: experiencia de comunidad educativa en la Ikastola Egape de Urnieta".



IKASLE OHIEN TXOKOA



Beñat Lizaso ikasle ohiak poema honekin sari bat irabazi du Hernaniko Institutuan.

Beldur dira

Begiak estaltzen dizkigute,

Begiak,

Ahoa,

Belarriak...

Ez begiratu,

Ez ezer esan,

Ez ezer entzun.

Ez errealitatea ikusi,

Ez entzun egia dioenari,

Ez ezer esan egia entzun nahi duenari

Beldur dira

Beldur...

Beldur, zuk begiak irekitzeaz

Beldur, zuk egia entzuteaz

Beldur, zuk borroka oihuak egiteaz

Beldur, zu berdin sentitu

eta berdintasunez jokatzear

Beldur, zure esku eta garunaz gizarte heteropatriarkala suntsitzeaz


Beldur dira,

Beldur ditzagun,

Beraien amesgaiztoak egi bilakatu arte.



Celia Fernández ikasle ohiak ohorezko matrikula eskuratu du Hernaniko Institutuan Batxilergoko ikasketak bukatzerakoan. Egapetik zoriondu nahi dugu. Baita aurtengo Selektibitatea gainditu duten ikasle ohi guztiei ere.



2014 2015 IKASTURTEARI ATZERA BEGIRA

